

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ERREZETEN ORDEZ, IBILBIDE OSASUNTSUAK

Tolosako Udalak antolatutako *Tolosa kale biziak* ekimenaren barruan dauden printzipioetako bat kaleak **17** eta bizitzeko esparru moduan ulertu behar direla da. Horretarako, Udalak hainbat ibilbide osasuntsu aukeratu, **18** eta markatuko ditu herritarrok erabili ahal izateko. Gune horiek, espazio publiko horiek, erakargarriak izatea ezinbestekoa da urbanismo inklusibo bat garatzeko eta **19** izateko.

Horrela, kaleak herrikoek bertan egin ahal dituzten ibilbideen bidez, ohitura eta bizi osasuntsuagoa izateko tresna ere badira. Gero eta zaharrago den **20** batean bizi gara eta gero eta garrantzi handiagoa du **21** ohitura osasuntsuak garatzeak, horrek zahartzaro hobia eta, **22**, duinagoa edukitzeko aukera ematen baitu.

Horrenbestez, aipatu bezala, Tolosako Udalak familiako medikuekin eta osasun-arretako anbulatorioekin egingo du lan, bertako medikuek ibilbide hauek egitea **23** baitiete herritarrei. Horrela, botika eta pilulak errezetatzetik ibilbideak errezetatzera pasatuko da. **24**, herriko kaleetan zailtasunaren arabera markatuko diren ibilbideak egitea gomendatuko zaie herritarrei. Modu horretan, zahartzaro duin, aktibo eta hobia izaten lagundu nahi zaie. Hori guztia aurrera ateratzeko, ekimen honen **25** izan daitezkeen kolektiboekin lan egin nahi da eta beraiek gustuko dituzten edota erabiltzen dituzten ibilbideak **26** nahi dira. Ibilbideok distantzia eta mota desberdinetakoak izango dira, eta aldaparen eta distantziaren **27** kolore desberdinez margotuko dira.

Proiektu honek bi fase ditu. Lehenengoan, ibilbideak erabiltzaileekin adostuko dira eta, ondoren, markatuko diren ibilbideetan paseatzea errezetatuko da osasun-arretako **28**. Horrekin batera, bigarrenean, ohitura osasuntsuekin jarraituz, ariketa fisiko **29** egiteko tresnak jartzea ere aurreikusten da. Profesionalek, **30** honetan medikuek, adierazten dituzten tresnak jarriko dira ibilbideetan, herriko jendeak ibili ez ezik, bestelako ariketak ere egin ditzan. Erabiltzaileekin ere adostuko da **31** jarri tresna horiek leku horietan.

Proiektu honen **32**, zahartzaroa, osasuna, zaintza eta bizi-kalitatea uztartu nahi dira. Egitasmoak hiru hanka nagusi ditu: Udala, Osakidetza eta herriko eragileak. Orain, proiektua martxan jartzeko, herriko eragileei dei egingo zaie hilaren 16an, kultura-etxeko areto nagusian egingo den **33** parte hartzeko. Bertan, Osakidetza emandako gomendioak eta markatutako irizpideak kontuan hartuta, ibilbideak **34** dira. Hori dela eta, Udalak argi du eragile eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa izango dela proiektu honetan, ibilbideak ahalik eta jende gehienak erabiltzeko diseinatu nahi baitira.

<tolosakoudala.net>, 2014ko ekaina. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia**17.a)** topagune**b)** pasabide**c)** indargune**d)** bitarteko**18.a)** jaso**b)** egokitu**c)** kokatu**d)** sortu**19.a)** erabiliak**b)** erabatekoak**c)** premiazkoak**d)** ezinbestekoak**20.a)** gizarte**b)** adin**c)** bizileku**d)** ingurumen**21.a)** gainerakoan**b)** bestelakoan**c)** bizitasunean**d)** egunerokoan**22.a)** horretarako**b)** batez ere**c)** berriz**d)** esaterako**23.a)** asmatuko**b)** bultzatuko**c)** adostuko**d)** aholkatuko**24.a)** Hala ere**b)** Baita**c)** Ordea**d)** Hau da**25.a)** egileak**b)** emailak**c)** hartzaileak**d)** ekoizleak**26.a)** banatu**b)** igaro**c)** astindu**d)** osatu**27.a)** aldean**b)** moduan**c)** arabera**d)** antzean**28.a)** eskabideetan**b)** guneeetan**c)** iragarkietan**d)** eskaintzetan**29.a)** zailak**b)** ezjakinak**c)** korapilatsuak**d)** arinak**30.a)** saio**b)** atal**c)** kasu**d)** joera**31.a)** norako**b)** zertarako**c)** non**d)** zergatik**32.a)** artean**b)** bitartez**c)** zehar**d)** ondorioz**33.a)** erakusketan**b)** bileran**c)** lehiaketan**d)** prozesuan**34.a)** zehaztuko**b)** bermatuko**c)** baztertuko**d)** konponduko